

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin zuen abenduan

Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,2ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen 2021eko abenduan, azken hilabeteetako altuena eta urte osoko altuenetako bat. Afiliazio kopurua 980.000 baino gehiagokoa izan zen hilabete horretan, eta 2019ko hilabete berean, pandemia hasi aurretik, erregistratutakoak berdintzetik oso gertu egon zen. Beraz, Covid agertu ondoren galdutako enplegu ia guztia berreskuratu da.


Generoaren arabera azterketak adierazten du igoera handiagoa izan zela emakumeen artean (%2,5), nahiz eta gizonek ere hobekuntza nabarmena izan zuten aurreko urtearekin alderatuta (%1,9). Zerbitzuek izan zuten igoera handiena (%2,7), industriak eta eraikuntzak lortutako tasekin alderatuta, biek %0,9 izan baitzuten. Emakumeek zerbitzu jardueretan duten kontzentrazioak azaltzen du abenduan izan duten bilakaera hobea.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


ABENDUKO AFILIAZIOA

%2,2




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



la jarduera adar guztien afiliazio kopuruak gora egin zuen 2020ko hilabete berarekin alderatuta, bakarrik bi salbuespenekin: finantza alorreko jarduerak eta lehen sektorea. Afiliazio berrien kopuruari dagokionez, ostalaritza nabarmentzen da, murrizketak leundu izateari esker. Aipatzekoak dira, halaber, hezkuntza, jarduera artistikoetan, lanbide jardueretan, adminis-

trazio jardueretan eta manufakturen industrietan izandako igoerak. Ehunekotan neurtuta, jarduera artistikoek (%14,2) eta ostalaritzak (%7,6) eskuratu zituzten aldakuntza tasa handienak, ondoren, hezkuntza (%4,9) dagoelarik, zenbait hilabetez jarraian oso igoera nabarmenak izan baititu.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2020ko abendua	2021eko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	959.132	980.022	20.890
Industria manufakturagileak	168.494	169.893	1.398
Merkataritza	136.136	136.897	761
Osasun arloko jarduera	110.636	111.418	782
Hezkuntza	75.349	79.058	3.709
Administrazio jarduerak	66.784	68.409	1.625
Ostalaritza	61.007	65.650	4.643
Lanbide jarduerak	57.009	59.145	2.135
Eraikuntza	56.624	57.154	530
Administrazio publikoa	48.530	49.517	987
Garraioa	42.621	43.175	554
Etxeko langileak	28.876	28.987	111
Bestelako zerbitzuak	26.131	27.128	997
Informazioa eta komunikazioa	23.571	24.500	928
Finantza jarduerak	17.352	16.941	-410
Jarduera artistikoak	15.626	17.846	2.221
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.721	11.355	-366
Ur horniketa	6.346	6.536	190
Higiezen jarduerak	4.132	4.194	62
Energia horniketak	1.577	1.589	13
Erauzketa industriak	552	553	1
Lurraldez kanpoko erakundeak	57	78	21

Iturria: Gizarte Segurantza.